

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

Kontratazio Publikorako Batzordea Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean sortu zen, organo arau-emaile gisa, eginkizun nagusi batzuetarako: administrazioaren efizientzia hobetzea eta araua behar bezala garatzea.

Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen bitartez –haren bidez indargabetu da 6/2006 Foru Legea–, zenbait aldaketa egin dira organo horren osaeran eta eginkizunetan, eta, hortaz, horiek agerrarazi behar dira batzordea hura garatzeko araudian.

Batzordeari dagokionez, badira zenbait berrikuntza. Ohi bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kontratazio gastu handiena duten departamentuak egonen dira, baita haren aplikazio eremuaren peko entitateen ordezkariak ere -orain gehiago izanen dira enpresa sektore publikoari tokia egiteko-. Baina, berrikuntza gisa, maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legearen bidez sortutako Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoko burua ere batzordeko kide izanen da, baita sindikatuen ordezkariak ere.

Kontratazio Publikorako Batzordearen antolamenduaren arabera, osoko bilkura da batzordearen jarduketa lerroak ezarri eta erabaki garrantzitsuenak hartzen dituen organoa. Lanak egitea, aldiz, batzorde berariazkoei dagokie.

Batzorde berariazkoen artetik Batzorde Iraunkorra azpimarratu beharra dago, duen garrantzia dela eta, txosten eta dokumentu teknikoak onesteko eginkizuna baitu.

Onestekoa den arauaren aldeko txostena eman du Kontratazio Publikorako Batzordeak, xxxxxxxxean egindako bilkuran, baita Toki Araubideko Foru Batzordeak ere, xxxxxean egindako bilkuran.

Horrenbestez, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 20..koaren ..ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz, dekretatu dut:

I. kapitulua. Kontratazio Publikorako Batzordearen izaera eta eginkizunak

1. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordearen izaera eta eginkizunak

1.- Kontratazio Publikorako Batzordea kide anitzeko organo bat da, bere eginkizunetan independentea, eta Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloko eskumena duen departamentuari atxikia organikoki; foru lege honen 4. artikuluan aipatzen diren entitateek kontratazio publikorako duten sistemak ongi funtzionatzen duela zaintzea du eginkizun nagusia.

2.- Bere eginkizunak gauzatzean, autonomia funtzional osoa du helburuak behar bezala betetzeko. Ez da, inola ere, jarraibide hierarkikoen mende egonen.

2. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordearen eginkizunak

1.- Kontratazio Publikorako Batzordeak, besteak beste, eginkizun hauek ditu:

a) Txostenak egin eta, behar denean, kontratazio sistemaren alderdi administratibo, tekniko eta

ekonomikoekin zerikusia duten arau, neurri edo jarraibideak proposatzea.

b) Adjudikaziorako irizpide eta baremoak prestatzea, foru lege honen menpeko pertsona eta entitateek erreferentzia gisa erabil ditzaten.

c) Informazioa ematea foru lege honen menpeko pertsona eta entitateei eta kontratazio publikoekin zerikusia duten erakunde profesional, sindikal eta enpresa-arlokoiei, gai horrekin lotura duten aferei buruz, haien gaineko iritzia eskatzen zaionean.

d) Nafarroako Gobernuari proposatzea kontratuen prestaketari, adjudikazioari eta aldaketari buruzko dokumentuen eredu normalizatuak onets ditzala.

e) Aditzera ematea egokia ote den lizitazio baten emaitza argitaratu gabe uztea egokia den ala ez.

f) Nazioarteko arauak betetzearen, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordeari erregelamenduz ezarritako kontratuen gainean eman behar zaion informazio estatistikoa zentralizatzea.

g) Nafarroako Kontratazio Ataria, Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforma, Kontratuen Erregistroa eta Borondatezko Lizitatzailen Erregistroa kudeatzea, gaurkotzea eta haien mantentze-lanak egitea.

h) Prezioen ezarpenaren inguruko arbitrajeak ebatzea Administrazioaren obra kontratuetan.

i) Urteko txosten bat aurkeztea Nafarroako Parlamentuan, horretarako zehazten den batzordean, zehazteko, alde batetik, zer esku-hartze izan dituen organo horrek, eta, bestetik, zer proposamen egiten dituen kontratazio-sistema efizienteagoa izateko eta zama administratiboak arintzeko.

j) 2014/24 Zuzentarauak gobernantzaren arloan eskatzen dituen betebeharren berri ematea. Zehazki, ez-betetze berriazkoak edo arazo sistemikoak atzematen dituenean, bere baliabidez edo horren gaineko informazioa jaso duelako, egoera horren berri ematea Kontuen Ganberari, organo jurisdikzionalei, eskumena duten egitura nazionaleri eta Nafarroako Parlamentuari.

k) Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko kideen izendapena proposatzea.

h) Kontratu Publikoiei buruzko Foru Legean agintzen diren txosten eta irizpenak egitea.

i) Azterlan, txosten eta proposamenak egitea, Nafarroako administrazio publikoen eta haren erakunde publikoen, enpresen eta fundazioen kontratazioan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeari buruz.

j) Kontratatzeko debekua deklaritzen duten espedienteetan ebazpen proposamena prestatzea, legez aurreikusitako kasuetan.

k) Urteko memoria prestatu eta onestea, Kontratu Publikoiei buruzko Foru Legearen mendeko erakundeek egindako kontratazio publikoaren kudeaketari buruz.

l) Kontratazio publikoaren sistema hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren azterlanak egitea eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoetako eta haren erakunde publikoetako, enpresetako eta fundazioetako langileak prestatzeko jardueretan parte hartzea.

m) Komunikazioa izatea Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearekin eta gainerako autonomia erkidegoetako organo baliokideekin.

n) Kontratazio publikoaren arloko arauen aplikazioari buruzko irizpideak finkatzea, bere eskumenen esparruan.

ñ) Bere ondorioen berri ematea Kontratu Publikoiei buruzko Foru Legearen menpe dauden entitateei, eta/edo, izaera orokorrez, egoki diren gomendioak ematea kontratazio publikoaren gaineko ikaslanen edo kontratu partikular baten ondorioz.

2.- Edonola ere, Kontratazio Publikorako Batzordeak behar bezala zainduko du kontratu publikoiei buruzko araudia zorrozki betetzen dela, eta, bereziki, tratu-berdintasun, bazterkeria-falta, elkarrenganako

aintzatespen, proportzionaltasun eta gardentasun printzipioak errespetatzen direla eta Administrazioak egiten dituen kontratuetan prerrogatibak egoki erabiltzen direla. Horretarako, kontratazio publikoari buruzko egiaztapenak eta azterlanak egin eta gomendio orokorrak zein partikularrak ematen ahalko dizkie entitate kontratatzaileei, dagokion eskumenaren arabera, eta, bereziki, kontratazio arloko dokumentazio administratiboa homogeneizatu eta sinplifikatzeari buruz.

II. kapitulua. Kontratazio Publikorako Batzordearen antolamendua

3. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordearen osoko bilkura eta batzordeak

1.- Batzordeak osoko bilkuraren eta batzordeen bidez eginen du lan.

2.- Batzordean txosten eta agiri teknikoak onetsiko dituen batzorde iraunkor bat egonen da beti, honela osatua: batzordeko buruordea, batzordeburu lanetan ariko dena, osoko bilkuran kideek beren artean izendatutako batzordekide bat eta batzordeko idazkaria. Kontratazio publikoaren arloan eskumenak dituen departamentuko Ondare Zerbitzuari atxikitako pertsona bat ariko da Batzordeko idazkari lanetan, hizpiderik eta botorik gabe. Kideek, batzordeko osoko bilkuran, Batzorde Iraunkorreko buruaren eta Batzorde Iraunkorreko kidearen ordezkioak izendatuko dituzte.

3.- Batzordeek beren ebazpenen berri emanen diote osoko bilkurari, egiten den hurrengo bilkuran.

4. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordeko osoko bilkuraren osaera

1.- Kontratazio Publikorako Batzordeko Osoko Bilkura honakook osatuko dute: batzordeburu edo lehendakariak, buruorde edo lehendakariordeak, idazkariak eta artikulua honen 4. apartatuari jarraikiz hautatutako lau kideek. Kontratazio Publikorako Batzordeko Osoko Bilkuraren osaera Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da.

2.- Kontratazio Publikorako Batzordeko kide karguek ez dute aldizkako ordainsaririk jasoko beren lanagatik. Nolanahi ere, dietak jasotzen ahal dituzte, deitutako eta egindako bileretara joateagatik, eta bai eta kalte-ordainak ere, kide gisa jarduteagatik, betiere Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariak erabakitzen duen zenbatekoaren arabera.

3.- Bai batzordeko idazkariak bai kide kargua dutenek prestakuntza berezia izan behar dute kontratazio publikoaren arloan.

4.- Honela osatuko da Kontratazio Publikorako Batzordea:

a) Batzordeburua Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilaria izanen da, edo kontseilariak aldi baterako edo betiko horretarako gaitutako pertsona. Pertsona horrek, gutxienez, zuzendari nagusi izan behar du.

b) Buruordea Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Ondare Zerbitzuko zuzendaria izanen da.

c) Kide bat Nafarroako Parlamentuak bere letratuen artean izendatutako bat izanen da.

d) Kide bat Nafarroako Gobernuan lehendakaritzan, justizian eta barne arazoetan eskumena duen departamentuko pertsona bat izanen da, Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko.

e) Kide bat Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Esku-hartze Ataleko burua izanen da.

f) Kide bat, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

g) Kide bat, Hezkuntzaren arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

h) Kide bat, Osasun arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

- i) Kide bat, Gizarte Eskubideen arloan eskumena duen departamentuak izendatua.
- j) Kide bat, Herri Lanen arloan eskumena duen departamentuak izendatua.
- k) Kide bat, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren ordezkaria.
- l) Kide bat, Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere funtzionarioen artean izendatutako pertsona.
- m) Kide bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak toki administrazioaren funtzionarioen artean izendatutako pertsona.
- n) Epaimahaikide bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hautatua.
- ñ) Kide bat, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren ordezkaria.
- ñ) Kide bat, ETEen ordezkari bat, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak izendatua.
- p) Kide bat, Nafarroako Ekonomia Sozialeko Enpresen Elkartearen ordezkaria.
- q) Kide bat, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko burua.
- r) Kide bat, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoko burua.
- s) Kide batzuk, Nafarroako Foru Komunitatean ordezkariak handienekotzat hartzen diren sindikatuak adina. Ordezkaritza handienekotzat hartzen den sindikatu bakoitzak pertsona bat izendatuko du bere ordezkari izateko.
- t) Idazkaria Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Kontratazio Ataleko burua izanen da.

5.- Batzordean direnek honakoengatik utziko dute kargua:

- a) Hartutako eginkizunak independentziaz bete ezinak bultzaturik uko egiten diotelako.
- b) Izendatu zituen organoak kargutik kentzen dituelako.
- c) Izendatu zituztenean zuten izaera galtzeagatik.

6.- Aurreko apartatuan aipatutakoa gorabehera, gizarte interesak ordezkatzen dituzten entitateek proposatuta izendatutako batzordekideak edozein unetan ordeztu ahaliko dira, batzordeko idazkariari ordezkaren izenaren egiaztapena aurkeztuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

5. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordeburutza edo lehendakaritza

1.- Batzordeburuak eginkizun hauek izanen ditu: batzordea ordezkatzea, osoko bilkurak deitu eta zuzentzea, eztabaidak gidatzea, erabakiak betearaztea eta kide anitzeko organoei buruzko arau orokorrekin lehendakariari esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak betetzea.

2.- Batzordeburua kanpoan edo eri dagoenean edo bestelako arrazoi justifikaturen bat duenean, buruordea arituko haren ordezkari. Buruordearen kargua bete gabe dagoenean, falta denean edo eri dagoenean, batzordeburuak kideen artean hautatzen duena ariko da haren ordezkari, aldi baterako.

6. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordeko Idazkaritza

1.- Idazkaritza da Kontratazio Publikorako Batzordeak laguntzarako, ikerketarako eta aholkularitzarako duen organo iraunkorra. Idazkaritzan sartuko dira, funtzionalki, esleituta dituen eginkizunak betetzen laguntzearen, Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Ondare Zerbitzuari atxikitako langileak.

2.- Idazkaritzaren zuzendaritza-lana idazkariari dagokio.

3.- Kontratazio Publikorako Batzordeko idazkariak eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Batzordearen osoko bilkuraren deialdiak egin eta igortzea, batzordeburuak eskatuta.
- b) Kontratazio publikoaren arloko txosten eta dokumentu teknikoaren proiektuak prestatzea.
- c) Batzordearen urteko memoria egitea.
- d) Gastuen aurrekontuko aurreproiektua egitea, batzordeburuaren zuzendaritzapean.
- e) Gainerako batzordekideei laguntzea beren eginkizunetan.
- f) Batzordearen dokumentazioa zaintzea eta agirien sarrera-irteerak erregistratzea.
- g) Batzordeari laguntza administratiboa ematea.
- h) Batzordeak kontratazioari buruz beharrezkotzat jotzen dituen azterlan eta ikerketak egitea.
- i) Nafarroako Kontratazio Ataria, Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataforma, Kontratuen Erregistroa eta Borondatezko Lizitatzailen Erregistroa kudeatzea.
- j) Batzordearen osoko bilkuretako aktak idatzi eta baimentzea.
- k) Laguntza unitate gisa dituen gainerako eginkizunak eta batzordeburuak agintzen dizkionak.

4.- Idazkari kargua hutsik dagoenean, edo hura kanpoan edo eri dagoenean, batzordeko buruordeak erabakiko du nor izanen den haren aldi baterako ordezkioa.

III. kapitulua. Kontratazio Publikorako Batzordearen funtzionamendua

7. artikulua. Saioak

1.- Batzordeko osoko bilkuraren eta haren batzordeen bilkurak eratzeko, deitzeko eta egiteko araubideak, erabakiak hartzeko prozesuak eta, oro har, kide anitzeko organo gisa duten funtzionamenduak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituko diote foru dekretu honetan aurreikusirik ez dagoen guztian.

2.- Batzordearen osoko bilkura gutxienez sei hilekoan behin bilduko da ohiko bilkuran, eta, ohiz kanpoko bilkuran, lehendakariak bere ekimenez dei egiten duenean edo kideen gehiengoak hala eskatzen duenean.

3.- Batzordearen osoko bilkuretara, Nafarroako Gobernuak kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Ondare Zerbitzuari atxikitako pertsona bat joanen da, hitzik eta botorik gabe. Haren zeregina bilkuran azaldu dena eta erabakitakoa aktan jasotzea izanen da.

8. artikulua. Txostenak eskatzea

Organo hauek eskatzen ahalko dio txostena batzordeari:

- a) Nafarroako Gobernuak kontseilariak, departamentuen izenean eta haiei atxikita edo haien zaintzapean dituzten erakunde, elkarte edo fundazio publikoen izenean.
- b) Toki entitateen gobernu organoak, beren eskumenen esparruaren barnean.
- c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak.
- d) Batzordean ordezkariak dituzten enpresaburuaren lehendakaria edo haren baliokidea.
- e) Nafarroako Parlamentuko lehendakaria.
- f) Kontuen Ganberako lehendakaria.
- g) Kontratazio organoa, Kontratu publikoei buruzko Foru Legean espresuki hala ezarritako kasuetan.

9. artikulua. Erregelamenduzko xedapenak egiteko prozesua

1.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legearen garapenak eskatzen dituen erregelamenduzko xedapenen proposamenak batzordeko Idazkaritzak egiten ahalko ditu edo, bestela, horretarako eratzen den batzorde txostengileak edo lantaldeak. Batzorde txostengilea edo lantaldea osatzeko agindua ematea eta hura eratzea batzordeko buruaren zeregina izanen da.

2.- Batzordeak osoko bilkuran xedapen proposamena onetsirik, Nafarroako Gobernuan kontratazio publikoaren arloko eskumena duen departamentuari igorriko dio, hasiera eman diezazion dagokion onespenezko prozedurari.

10. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordearen urteko memoria

Idazkariak prestatu behar du Kontratazio Publikorako Batzordeak Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuan horretarako erabakitzen den batzordeari urtero igorri behar dion memoria. Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen mendeko erakunderen kontratuzko jardueratik lortutako informazioan oinarrituko da memoria, eta osoko bilkuran onetsiko da.

IV. kapitula. Prezioak finkatzeko Arbitraje Batzordea

11. artikulua. Prezioak ezartzeko arbitraje prozedura

Obren kontratu administratibo bat aldatzearen ondorioz proiektuan aurreikusi ez ziren obra-unitateak edo aurreikusitakoekin zerikusirik ez dutenak sartzen badira, kontratistak, behar den negoziazioa burutu ostean, administrazioak hasiera batean proposatutako prezioak onartzen ez baditu, eskubidea izanen du unitate berriak ez egiteko edo prezioak ezartzeko arbitraje prozedura bat has dadila eskatzeko. Azkeneko kasuan, obra egiten jarraitu beharko du.

12. artikulua. Arbitraje prozeduraren tramitazioa

1.- Administrazioak prezioen hasierako proposamena egin eta gero, kontratistak, prezioak adosteko, hamar egun balioduneko epea izanen du proposamena jakinarazi eta biharamunetik kontaktatzen hasita.

2.- Arbitraje eskaera kontratazio organoari aurkeztuko zaio. Kontratistak, horrekin batera, prezioen proposamena eta mahaikide teknikoarena ere aurkeztu behar ditu.

3.- Kontratazio organoak, eskaera jaso eta biharamunetik hamar egun balioduneko epean, Kontratazio Publikorako Batzordeari igorriko dio, agiri hauekin batera betiere: prezioen hasierako proposamena, kontratistak eginiko prezioen proposamena, kontratazio organoak eta kontratistak mahaikide teknikoa izendatzeko eginiko proposamena eta kontratuaren espedientearen kopia osoa.

4.- Hasteko eskaera jaso ondoren, Kontratazio Publikorako Batzordeko buruordeak prozeduraren hasiera ebatziko du. Horretarako, eskaera batzordearen eskumenen esparruaren barnean dagoela egiaztatu beharko du. Hasteko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

5.- Arbitraje Batzordea izendatu ondoren, batzordeburuak batzordea eratzeko bilerarako deia egingen du, gutxienez bost egun lehenagotik.

13. artikulua. Arbitraje Batzordearen osaera

1.- Prezioak kontraesaneko prozedura bidez ezarriko ditu arbitraje batzorde batek. Batzorde hori Kontratazio Publikorako Batzordeko buruordeak izendatuko du, aldiro, eta honela osatuko da:

a) Kontratazio Publikorako Batzordeko idazkaria edo Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare

Zerbitzuko Kontratazio Atalari atxikitako administrazio publikoko (arlo juridikoa) teknikari bat, batzordeburu arituko dena.

b) Prestakuntza teknikoa duen pertsona bat, arbitraje prozeduran parte den kontratazio organoak proposatua.

c) Prestakuntza teknikoa duen pertsona bat, arbitraje prozeduran parte den kontratistak proposatua.

d) Prestakuntza teknikoa duen pertsona bat, Kontratazio Publikorako Batzordeak izendatua.

e) Idazkaria, hizpiderik eta botorik gabe, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuari atxikitako pertsona bat.

2.- Batzordean parte hartzen dutenei aplikatzekoa den araudian abstentziorako eta errekusatzeko aurreikusitako kausen menpe egonen dira.

3.- Arbitraje Batzordeko kideek ez dute aldizkako ordainsaririk jasoko beren lanagatik. Nolanahi ere, dietak jasotzen ahal dituzte, deitutako bileretara joateagatik, bai eta kalte-ordainak ere, kide gisa jarduteagatik, betiere kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariak erabakitzen duen zenbatekoaren arabera.

14. artikulua. Ebazteko epea eta erabakia

1.- Arbitraje Batzordeak hilabete izanen du, eratzen den egunetik aitzina, erabakia hartzeko. Arrazoiak emanaz hartu beharko du erabakia, prezioak ezartzeko sortutako gorabehera guztiak ebatziko ditu, eta haien berri emanen die interesdunei. Arbitraje Batzordearen ebazpena loteslea izanen da bai kontratatzailearentzat bai kontratistarentzat, eta amaiera emanen dio administrazio bideari.

2.- Epea iraganik Arbitraje Batzordeak erabakia hartu ez badu, berretsiztat emanen dira kontratistak hasiera batean proposatutako prezioak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.- Kontratazio Batzordearen eratzea

Foru dekretu honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Kontratazio Publikorako Batzordea eratzeko bilkurarako deia egingen da.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indarrrik gabe gelditzen dira azaroaren 5eko 236/2007 Foru Dekretuak Kontratazio Publikorako Batzordeaz dituen xedapenak, Kontratazio Publikorako Batzordea eta bere kargupeko prozedurak eta erregistroak arautu zituen foru dekretuarenak alegia.

AZKEN XEDAPENA – Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.